

ETORKIZUNA ERAIKIZ think tank

KULTURA POLITIKO BERRIA

15. BILERAREN MEMORIA

2021/11/24

Edukia

1. Programa 3

2. Bertaratuen zerrenda 3

3. Ongietorria 4

4. Stéphane Vincenten La 27e Région-en inguruko aurkezpena 9

5. Talde dinamika 19

6. Balorazioa eta amaiera 23

7. Eranskinak 25

   a. Saioan erabilitako aurkezpena 25

   b. 16. Lan dokumentua 40

   c. Saioko programa 49

KULTURA POLITIKA BERRIARI BURUZKO EZTABAIDA GUNEA

2021eko azaroaren 24a, 17h-19h

1. Programa

Gaia	Arduraduna
Ongietorria	Miren Larrea, Orkestra-Lehiakortasunerako Euskal institutua
Aurkezpena	Stéphane Vincent, La 27e Région
Talde dinamika	Miren Larrea, Orkestra-Lehiakortasunerako Euskal institutua
Saioaren itxiera	Miren Larrea, Orkestra-Lehiakortasunerako Euskal institutua

2. Bertaratuen zerrenda

1. Xabier Barandiaran. **Gipuzkoako Foru Aldundia**
2. Ander Arzelus. **Gipuzkoako Foru Aldundia**
3. Sebastián Zurutuza. **Gipuzkoako Foru Aldundia**
4. Ion Muñoa. **Gipuzkoako Foru Aldundia**
5. Mikel Pagola. **Gipuzkoako Foru Aldundia**
6. Itziar Eizagirre. **Gipuzkoako Foru Aldundia**
7. Julen Cocho**. Gipuzkoako Foru Aldundia**
8. Asier Lakidain. **Sinnergiak**
9. Mikel Irizar. **Eusko Ikaskuntza**
10. Naiara Goia. **Arantzazuko Gizarte Berrikuntza Laborategia**
11. Gorka Espiau. **Agirre Lehendakaria Center**
12. Miren Larrea. **Orkestra-Lehiakortasunerako Euskal institutua**
13. Eva Sánchez. **Orkestra-Lehiakortasunerako Euskal institutua**
14. Mikel Gaztañaga. **Orkestra-Lehiakortasunerako Euskal institutua**

3. Ongietorria

Orkestrako erraztaileak hasi du saioa. *"Egun on denoi. Eskerrik asko etortzeagatik. Gaurko aurkezpena ingelesez egingo da. Hori dela eta itzulpen zerbitzua egongo da. Gaurko saioko sarrera Gobernantza Diputatuak egin behar zuen, baina ezin izan du etorri. Beraz, gaurko sarrera nik egingo dut. Hala ere, Gobernantza Diputatuak saioa grabatzeko eskatu du. Izan ere, saioan landutako gaia lantzeko asmoa dauka. Hori dela eta, proposamenak egiteko orduan, Gobernantza Diputatua egongo baldin bazen bezala jardungo dugu."* Orkestrako erraztaileak aipatu du taldekide berri bat dagoela Think Tankean. Etorkizuna Eraikizeko ikerlaria izango da.

Etorkizuna Eraikizeko ikerlaria aurkezten da. *"Nire jakintza esparrua zientzia politikoa da. Etorkizuna Eraikiz proiektuan ikertzen egongo naiz."*

Orkestrako erraztaileak hartu du hitza berriz. *"Eskerrik asko aurkezteagatik. Hemendik aurrera proiektuan integratzen joango zara. Lasai egon. Baina, esan bezala, taldekide berri bat izango dugu deliberazio talde honetan. Bueno, esan bezala, sarrera gaur nik egingo dut. Lehenik eta behin, saioko sarrera bat egingo da. Gero ECO6 eta nik saiotik saiora egiten dugun prozesua azalduko dizuegu. Bestetik, gaur Stéphane Vincentek aurkezpena egin behar du. Pantaila txikian ikusten dugu. Vincent saioa jarraitzen ari da. Izan ere, itzulpen zerbitzua dago eta berak ondo ulertzen du guk esandakoa. Ondoren, aurkezpenean esandakoan oinarrituta, taldeetan gaia landuko dugu. Azkenik, plenario bat izango dugu eta Stéphane Vincentek saioan agertutako duda eta galderei erantzungo die."*

Orkestrako erraztaileak honakoa esan du: *"aurreko saioan egin ziren ebaluazioetan aipatzen zen Maria José Canelek egin zuen 20 minutuko laburpena gustatu zitzaizuela. Egiten diren ekarpenak jaso eta saioa bera prozesuan kokatzeko ariketa bat da. Horrekin lotuta, guk galdera hau egin genuen: guk egiten al dugu horrelako zerbait? Egia da guk laburtze edo kokatze ariketa bat lan dokumentuetan egiten dugula. Hala ere, susmoa geneukan partaideek ez zituztela lan dokumentuak irakurtzen. Uste dugu saiotik saiora*

egiten den prozesua ulertzea ondo dagoela. Hori dela eta, hartu dugun erabakietako bat hau da: saioen hasieran lan dokumentuaren laburpen bat egingo dugu. Konturatuko zarete esaten dituzuen ideiak eta proposamenak jasotzen direla. Gaurkoan ez dugu laburpen hori egingo. Izan ere, azken lan dokumentuan María José Canelek egin zuen laburpena edo azaldu zituen ideiak jasotzen dira. Beraz, errepikakorra egingo litzaizueke. Baina, hemendik aurrera laburpen hori egiteko denbora bat hartuko dugu saioaren hasieran."

Orkestrako erraztaileak esan du *"prozesuan nola gauden azaltzea gustatuko litzaidake. Hau da, zein momentutan gauden. Metodologian aldaketa bat egin dugu. Oraingo metodologian ekintza jartzen dugu erdigunean. Momentu honetan ekintzarako baldintzak sortzen edo eraikitzen ari gara. Gaurko saioaren helburua, zentzu horretan, ekintzarako oinarriak finkatzea da. Gogoratu 3 ekintza definitu dituela talde honek."*

ECO6k hartzen du hitza. *"Gaur gurekin Stéphane Vincent daukagu, La 27e Regioneko sortzaile eta zuzendaria. Beraz, Stéphane, ongi etorri eta eskerrik asko gaur gurean izateagatik. Nahiz eta gero berak azalduko duen zer den La 27e Région, nik sarrera bat egingo dut. La 27e Région eraldaketa publikoko laborategia bezala definitzen da. Elkarte independente bat da. Diziplina, gogoeta eta esperimentu anitzeko gune ba proposatzen du, eta funtzio publikoaren etorkizun desiragarriak definitzeko helburua dauka. Administrazioekin zerbitzuak, tresnak, metodologiak eta antolatzeko modu berriak probatzen dituzte. Jadanik 10 urteko jarduna dute. Esperimentazioa helburua izanik, diziplina anitzeko taldeak mobilizatzen ditu: diseinatzaileak, zientzia sozialetako pertsonak, etab. Lehen ez dut esan, baina antolakunde hau Frantziakoa da. Modu batean antolakunde hau Arantzazu Laben homologo bezala klasifikatu daiteke. Sinergia asko ditugun bi erakunde gara. Gure jardunaldia beraien eskutik hasi dugu, adibidez. Stéphanek esaten duen moduan, bada garaia Europa hegoaldeko laborategiak, antolakundeak edo taldeak lotzen hasteko. Izan ere, beti iparraldeko herrialdeei begira egoten gara: Eskandinavia, Kanada, etab. Baina, bara ordua hemen egiten dena balioan jartzeko eta hemen dauden antolakundeen artean loturak sortzeko. Hau da, konplexurik gabe kokatzen hasteko."*

ECO6k esan du *"La 27e Régionen lana bikoitza da: alde batetik, ekintza-ikerketako programak egiten ditu politika publikoak diseinatzeko, eta horiek inplementatzeko metodologia berriak aurkezten ditu. Bestetik, sektore publikoen artean dauden sareak edo ezagutza trukeak sustatzeko iniziatiba-gunea dela ere esan dezakegu. Orain, zergatik da antolakunde hau interesgarria guretzat? Zergatik gonbidatu dugu Stéphane? Zergatik uste dugu interesgarria izan daitekela think tank honentzat? Alde batetik uste dugu think tank honetan lantzen diren gaiekin eta edukiekin lotura zuzena daukala. Bestetik, beraiek 10 urteko ibilbidea daukate. Eta haien esperientziak gure proiektuekin lotura zuzena dauka. Adibidez, Gobernantzako Diputatuak egin behar duen proiektuarekin oso lotuta dago. Arantzazu Labek egin behar duen 'mapatze' ariketarekin ere oso lotuta dagoela esan daiteke. Hirugarren proiektuarekin ere lotuta dago. Gainera, proiektu horiek ekintza ikerketarekin lantzen ari gara. Beraz, La 27e Régionen hiru ekintza mota horiek jorratu dituzte. Hori dela eta, saio hau guretzat interesgarria dela uste dugu. Jakin nahi dugu ikerketa ekintza nola txertatzen duten beren programetan."*

ECO6k aipatu du *"La 27e Régionek gobernuen barruan eraldaketa gaitasunak sortzen ari da. Bere jardunaren hasieratik galdera batzuk planteatu ditu: zer da kultura politiko berri bat? Nola garatu gaitasunak? Horiek izan dira antolakunde honen galderak. Ikusten den moduan, Gobernantza Diputatuaren proiektuan agertzen diren galdera antzekoak dira. Urte hauetan guztietan antolakunde hau ohartzen da kultura politiko berri bat ezarri nahi bada, gobernantza ereduetan ere eragin behar dela. Bai barnera eta bai kanpora begira. Erronka honi aurre egiteko programa espezifiko bat jartzen dute martxan: gobernua eta herritarren arteko harreman moduak lantzeko programa bat da. Esandako hori gure bigarren ekintzarekin lotuta dago. Gainera, ikusi dute politikoen lidergoak, ahalmenak edo ezaugarriak berritu egin behar direla. Hau da, egokitu egin behar direla."*


ECO6k esan du *"hori guztia esanda, uste dugu La 27e Régionek egiten duena erabat lerrokatuta dagoela guk hemen egiten dugun jardunarekin. Eta hori dela eta, uste genuen interesgarria izango litzatekela antolakunde honen aurkezpena entzutea. Gainera, gu orain hastear gauden ibilaldi hori beraiek denbora luze batez egiten daramate. Uste dugu zer ikasi daukagula, bai administrazioaren eraldaketaren proiektuari dagokionez, baita gizartearekin gobernantza eredu bat birpentsatzearen*

proiekturi dagokionez ere. Gainera, ekintza-ikerketa bitartez egiten dute beraien jarduna. Beraz, guretzat oso interesgarria dela uste dugu. Gainera, deliberazio bilera hau baino lehenago, saio hau prestatzen ari ginenean, Stéphani gure prozesuaren momentua eta zein lan ildo lantzen ari garen azaldu genion. Bere aurkezpena gure egoerara egokitzea izan zen helburua. 3 galdera espezifiko egin genizkion. Hauek dira galderak: 1- Nola jarri ditzakegu elkarlanean elkarri bizkarra emanda aritu diren zerbitzu, talde edo departamenduak? 2- Zein dira erakunde publikoen eta gizarte zibilaren arteko lankidetzazko gobernantza garatzeko aurkitu dituzuen erronkak? 3- Nola uztartzen dituzue zuen ekintza ikerketan kanpoko adituen jakintza eta proiektuetako partaideek dakartena? Aurkezpenean Stéphane Vincent galdera horiei erantzuten saiatuko da. Beraz, uste dugu interesgarria izango dela aurkezpena. Nik uste dut esan beharrekoak esan ditudala."

Orkestrako erraztaileak hartu du hitza. *"Labur-labur azalduko ditut aipatu diren hiru proiektuak. Nik uste galdera horiekin kokatu zaituzteguela. Gure zalantzak zein diren ikusi ditzakezue galdera horietan. Baina, badaezpada ere, gogorarazteko. Lehenik eta behin, administrazioaren aldaketara bideratuta dagoen proiektua dago. Hau Aldundi barruan aldaketa prozesu bat egitea izango litzateke. Batzuetan formakuntza aipatu da, bestetan, aldiz, beste modu bateko prozesua izan daitekeela esan da. Gogoratu prozesuaren oinarriak jartzen ari garela. Hau da, gauza asko erabakitzeko daude oraindik. Erabaki horiek hartzen deliberazio talde honek lagundu behar du. Proiektu honekin hausnarketa batzuk egon dira. Adibidez, proiektu honek Aldundiko beste proiektuekin zer lotura izan ditzake? Hori dela eta, mahi bakoitzean Aldundiko baten bat jartzea erabaki dugu. Besteek ere prozesua ulertu dezaten. Stéphanek egiten duen aurkezpenetik ideia interesgarriak jaso beharko dira, eta horiek Aldundiaren proiektu honekin lotzen saiatu."*

ECO6k hartzen du hitza. *"Aurkezpenaren zati handi bat administrazioaren eraldaketan oinarrituko da. Hau da, lehenengo proiektuan, Gobernantzako Diputatuaren proiektuan, gehiago sakonduko du. Xehetasun gehiago emango dira aurkezpenean. Beste proiektuen inguruan zenbat ideia emango dira. Baina horiek orokorragoak izango dira. Gogorarazi nahi dizuet bigarren proiektua, Arantzazu Laben proiektua, proiektu*

dinamiko bat izango dela. Azalpen txiki bat: Ez da mapeo estatiko bat izango. Denborarekin aldatzen joango den mapa bat izango da. Dinamikoa, beraz. Lehen mapeoa egin dugu, eta zenbait lehentasun ezarri ditugu. Lehendakari Agirre Centerrek lagunduko digu prozesu honetan. Globernancek Udal Etorkizuna Eraikizekin egin duen lan batekin ere lotuko dugu. Proiektu honen xehetasunak hurrengo think tankeko bilkuran azalduko ditut, urtarrilean."



Orkestrako erraztaileak hartu du hitza. *"Nik hirugarren proiektuaren inguruan azalpen bat emango dizuet. Gaur ere ekintza ikerketaz arituko gara. Ekintza ikerketak eskatzen du deliberazioan parte hartzen dugunok arazoaren jabe izatea. Guk deliberazio honetan politikako ekosisteman gaudelako parte hartzen dugu. Think tank honen helburua politika ekosisteman eragina izatea da. Hau da, eraldatzea. Hori dela eta, honek guztiak zentzua dauka ekintza ikerketaren aldetik. Hemen gauden aktore desberdinek arazoari heldu behar diogu, eta guregan, ekosistemako partaide bezala, eraldaketak egiteko prest egon behar dugu. Hori dela eta, gaurko aurkezpenarekin ez dugu bakarrik lehen eta bigarren proiektuetan pentsatu behar. Gu, ekosistemako aktore bezala, nola aldatu*

behar dugun pentsatu behar dugu. Gaurko dinamika Stéphanen aurkezpena hiru proiektuekin lotzea izango da. Taula bat banatu zaizue. Bertan, aurkezpenean sortzen zaizkizuen ideiak txertatzen joango zarete. Gero, taldeetan jartzen zaratenean, idatzitako ideiak partekatzeko aukera izango duzue. Eztabaida bat bultzatzea da helburua. Gero, plenarioan, komunean jarriko dira taldeetan ateratako ideiak."

Orkestrako erraztaileak aipatu du *"hemendik aurrera saioaren hasieran prozesuaren inguruko laburpen bat egingo dugu. Behar hori ikusi dugu. Izan ere, askotan prozesuaren ildoa galtzea erraza da. Guk deliberazio bilera batetik bestera gai honekin egiten dugu lan. Hori dela eta, prozesua bere baitan ulertzen dugu. Edo, jarraitzea ez zaigu hainbeste kostatzen. Zuek aldiz, deliberazio egun batetik bestera galtzeko aukera gehiago duzue. Hori dela eta, saioaren hasieran laburpen bat egitea pentsatu dugu, prozesua hobeto ulertzeko."*

ECO6k hartu du hitza. *"Oso ondo dago laburpen hauek egitea. Baina, nik uste gaurkoan luzeegia egin dugula. Denboraz pasatu garela uste dut."*

Orkestrako erraztaileak, aldiz, esan du *"nire ustez garrantzitsua da denbora bat hartzea. María José Canelen saioan argi ikusi zen partaideek ondo ikusten dutela 20 bat minutu hartzea prozesua azaltzeko. Prozesuaren ideia orokor bat izateko ezinbestekoa da. Guk askotan presaka azaltzen dugu. Baina uste dut 20 minutu hartzea ondo dagoela. Gainera, partaideek behar hori adierazi duzue. Ez dakit galderarik duzuen. Bestela, aurkezpenarekin hasiko gara. Eskerrik asko."*

4. Stéphane Vincenten La 27e Région-en inguruko aurkezpena

Stéphane Vincentek hartu du hitza eta bere aurkezpenari hasiera ematen dio. *"Arratsalde on guztioi. Eskerrik asko gonbidapenagatik. Zuekin aurrez aurre egotea gustatuko litzaidake, baina ezin izan dut. Nire aurkezpena online izango da. 30 minutukoa izango da. Nire izena Stéphane Vincent da eta La 27e Régionen ko-sortzailea eta zuzendaria naiz. La 27e Région irabazi asmorik gabeko erakundea da. Aurkezpeneko*

lehenengo diapositiban (Eranskinak a); 1. diapositiba) agertzen den argazkiarekin alderatzen dut gure lana. Poliki-poliki, ibilian, gobernantza eta politika publikoen aldaketa egiten dugu. Ez da lan erraza, zailtasun ugari daude. Baina, gure hautua da eta honekin gaude. Gure ibilaldian hainbat tresna garatu ditugu. Aurkezpenean tresna horiek azalduko dizkizuet. Aurkezpenak hiru atal edukiko ditu. Lehenengo atalean, gure antolamenduaren gainean hitz egingo dut: nor gara, nondik gatoz, zer egiten dugu, etab. Atal honetan ekintza ikerketaren inguruan zenbait gauza esango ditut. Gainera, bi kasu aztertuko ditut. Lehenengo kasuak 'Lieux Communs' izena du. Bigarrenak, 'La Transfo'. Bi kasu interesgarri dira. Lehen aipatu diren bi esparruak lantzen dira: barne aldaketa eta kanpokoa."



Stéphane Vincentek aipatu du "*sarrera bat egingo du lehenik. Esan den bezala, La 27e Région irabazi asmorik gabeko erakundea da. 2008an sortu zen Frantziako Lurraldeen Elkartearen parte hartzearekin. Pertsona batzuk bere momentuan pentsatu genuen proiektu bat da. Ni, proiektu hau sortu baino lehenago, funtzionarioa nintzen. Kontsultore lanetan ere ibili naiz. Frantziako Lurraldeen Elkarteari hau esan genion:*

laborategi sozial bat falta da. Egia da think tank asko zeudela, baina 'think and do tank' deitzen zaion hori falta zela uste genuen. Eraldaketa sozial ta publikoko laborategi bat da. Diziplina anitzean oinarritzen da antolakundea, eta 10 pertsonez osatua dago. Azken hau konpromiso bat izan zen. Izan ere, babesa ematen digutenek ez zuten nahi talde handiegia bihurtzea. Hala ere, 150 pertsonako komunitate batek hartzen du parte antolakundean. Pertsona horiek hirigintzan, giza zientzietan, komunikazioan edo diseinuan adituak dira. Milioi bat euroko aurrekontua dauka antolakundeak. Bestetik, hainbat kide ditugu gure antolakundean: hainbat udal, hainbat lurralde eta hainbat hiri dira gure antolakundearen parte. Kide izateko bost mila euro ordaindu behar dira urtean. Hala ere, pertsona moduan ere izan daiteke kide. Kasu honetan urtean 40 euro ordaindu behar dira."

Stéphane Vincentek bere aurkezpena egiten jarraitu du. *"Gure antolakundearen begiradari dagokionez, utopia konkretu bat nahi dugula aldarrikatzen dugu: sektore publikoan hegemonikoak diren kultura politikoak aldatzea. Horixe da gure hautua. Hasieran aldaketa honen marko bat proposatu genuen. Hona hemen ideia batzuk. Lehenik eta behin, kontuan hartu behar da Frantzian –nahiz eta Macronek zenbait aldaketa egin dituen- funtzionarioen kultura oso elitista da. Beraz, gure ideia bikaintasun hori zalantzan jartzea da: bikaintasuna premiatu ordez, sormena, adibidez. Kultura berri bat proposatzen da: beharrak, erantzunak, 'monokultura', adituen iritzia, siloak, kontrola eta planifikazioa premiatu ordez, kultura berri honek praktika, kritikotasuna, ikuspegi trans-diziplinarioekin lan egitea, erabiltzaile eta hiritarrekin lan egitea, ikuspegi sistemikoa, konfiantza eta proba-errorea lehenesten du.*

Stéphane Vincenten esanetan, *"kultura politiko berri bat bultzatzen dugu. Administrazioan aldaketa batzuk egotea nahi dugu, eta horretarako egiten dugu lan. Orain, zenbait ideiekin lan egiten dugu: berrikuntza sistema nola aldatu, patriarkatuaren presentzia, etab. Hau da, laburtzeko, kultura politiko berri bat bultzatu nahi dugu eta horretarako administrazioan zenbait aldaketa bultzatzen ari gara. Nahiz eta denak ez aipatu, garrantzitsuenak direnak esan ditut. Orain, hau nola egiten dugu? Lehen esan bezala, pausoz-pauso egiten dugu. Aldaketak bidaia baten moduan ulertzen ditugu.*

Bidaia luze baten moduan, hobeto esanda. Gainera, bidaia honek nora eramaten zaituen askotan ez dago argi. Hau da, ez da bidaia kontrolatu bat."



Stéphane Vincentek bere aurkezpena egiten jarraitu du. "*Sortu ginenetik honaino egin ditugun pauso desberdinak azalduko ditut orain. 2008tik 2014ra berrikuntza metodologien inguruan hausnartzen eta esperimentatzen egon ginen. Hemen garatutako metodologiak maila desberdinetan erabiltzen ibili gara. Hirigintzan, soziologian edo diseinuan adituak diren pertsonekin lan egin dugu metodologia hori garatzen genuen bitartean. Metodologia hau udal eta gobernu desberdinekin garatu dugu. Ez dugu bakarrik egin. 2014tik aurrera egiten genuena gustuko zutela ikusita, gobernu askok gure metodologia eta gure lana beraien kabuz garatzeko eskatu ziguten. Hau da, beraien gobernuetan La 27e Région bat sortzea nahi zutela esan ziguten. Berrikuntza eta ahalduntzea txertatu nahi zituzten beraien gobernuetan. Guk beraiek hori garatu ahalko zutela duda egiten genuen. 13 udal eta gobernuekin lan egin genuen etapa honetan. 2019tik aurrera, beste norabide bat hartu zuen gure antolamenduak: gobernantza berria edo gobernantza berritzailearen norabidea jarri genuen. Konturatu ginen ez dela nahikoa funtzionarioak ahalduntzea. Botere harremanak aldatu behar dira. Lehenik eta behin botere harreman horiek aztertu egin behar dira: gobernua*

hierarkikoa da? Herritarrei entzuten al die? Horizontaltasunean oinarrituta al dago? Galdera horiei erantzun behar zaie".

Stéphane Vincentek esan du: *"ibilbide desberdinak egin ditugu, beraz. 3 guztira: 2008-2014, 2014-2019, 2019-2021. Oraingoan ez dakigu norantza goazen. Nola aldatzen dugu norabidea? Nola erabakitzen dugu norabide aldaketa? 3 pausuko prozesu bat da. Adibide bat aukeratuko dut, gobernantzaren berrikuntzarena. 2017an hasi ginen, Webinar batekin. Webinar hori gobernantzaren berrikuntzaren inguruan izan zen. Webinar horietan jendeak zenbaterainoko interesa duen ikusten dugu. Hau da, gai hau nahikoa interesatzen al da? Interesa baldin ba dago, hurrengo pausua ematen dugu. Inkesta parte-hartzaile bat egiten dugu ondoren. Kasu honetan bi inkesta parte-hartzaile egin genituen, Erasmus + programaren baitan. Hau 2018an egin zen. 7 hiri europar bisitatu genituen: Britainia Handiko hiri batzuk, Amsterdam, Atenas, etab. Gobernantzaren inguruko proiektu inspiratzaileak bilatu genituen elkartze horietan. Gobernu eta herritarren arteko proiektuak ziren gehienetan. Eta, proiektu horietako parte-hartzaileak egindakoarekin oraindik eta interesatuago baldin badaude, beste pausu bat ematen dugu: ekintza-ikerketan oinarritutako prozesu kolaboratzaile bat irekitzen da. Azken hau 2020an gauzatu zen. Azaldu dudan ordena ez da beti betetzen. Askotan lehena inkesta egiten da, eta gero webinarra. Edo beste ordena bat jarraitzen da. Baina, gutxi gorabehera, prozesuaren ordena hau izaten da. Baina, garrantzitsuena, proiektuan parte hartzen duten aktoreen artean elkarretaratzea sortzea da."*

Stéphane Vincentek bere aurkezpena egiten jarraitu du. *"2018an egin genuen webinarraren zati bat erakutsiko dizuet (Eranskinak a; 12. diapositiba). Ikusteko, besterik gabe. Inkesta parte-hartzaileei dagokionez (Eranskinak a); 13. diapositiba), informazioa jasotzen dugu, eta aliantza desberdinak eraikitzen saiatzen gara. Funtzionario desberdinekin egin genuen lana. Egindako hainbat aipatuko ditut: 'Sonar: under the surface of public innovation', 'Enacting the commons', 'Embedded lawyers', eta 'Neighborhood solidarities'. Eta, esan bezala, gehiago sakondu nahi denean, ekintza-ikerketako programak jartzen ditugu martxan. Esan genezake hori dela gure indar gunea. Nola funtzionatzen duen azalduko dizuet. Inoiz ez dugu gobernu bakarrarekin lan egiten. Prozesuetan 3-10 administrazio desberdin lanean jartzen saiatzen gara. Rol*

desberdinak ezartzen ditugu: parte independente bat. Kasu honetan gu, La 27e Région. Gu parte neutralak gara. Ez gera aholkularitza enpresa bat, eta independenteki jokatzen saiatzen gara. Bestetik, oso prestatuak dauden profesional talde bat, eta, boluntarioak diren funtzionario batzuk (enbaxadoreak). Funtzionario horiei enbaxadore deitzen diegu. Oso garrantzitsuak dira. Funtzionariorik gabe prozesua egitea arriskutsua dela esan dezakegu. Prozesuaren luzaera normalean urte batekoa izaten da. Hala ere, lau urtetara ere luzatu daiteke. Aurrekontua 100 mila eurotik 3,6 miloi eurora bitartean izaten da. Ikerketa prozesua soziologian, etnografian, diseinuan, hirigintzan eta beste hainbat diziplinetan oinarritzen da. Gure helburua administrazioan ohikoak ez diren diziplinekin lan egitea da. Eta bukatzeko, dokumentazioari gehiago erreparatzen diogu komunikazioari baino. Hau da, marketin eta horrelako gauzei ez diogu asko erreparatzen. Hori dela eta, dokumentazio desberdina argitaratu edo Internetera igotzen dugu: bideoak, liburuxkak, laburpenak, etab. Ordaindu behar ez diren edukiak izaten dira. Hau da, doakoa da."

Stéphane Vincentek azaldutakoaren hainbat adibide eman ditu. *"Proiektu horietako batzuk izendatuko ditut. Adibidez, 'Territories en Residences'. 2008tik 2016ra bitartean egin zen proiektu bat da hau. Politika publikoen inguruko erronken inguruan izan zen. Ko-diseinua egin zen hainbat aktorerekin. Helburuetako bat, adibidez, osasun zerbitzuak hobetzea zen. Beste proiektu bat, 'La Transfo' izan zen. Proiektu hau 2014tik 2016ra, eta 2016tik 2020ra egin zen. Proiektu honetan Pariseko Udalarekin, Okzitaniako Gobernuarekin eta beste hainbat gobernurekin egin zen lana. Bestea 'Les Eclaireurs' proiektua da. Proiektu hau 2016 eta 2019 bitartean gauzatu zen. Administrazio arloan etorkizun desiragarriak bilatzen lagunduko zuen proiektu bat zen. Horiez gain, '(Dé)formations proiektua, 'Public Reflexes and Public Capacities' eta 'Lieux Communs' proiektuak gauzatu ditugu. Horietan hainbat gai landu ziren: udal eta gobernu txikien erresilientzia pandemia garaian, politikoen formakuntza, etab."*

Stéphane Vincentek bere aurkezpena egiten jarraitu du. *"Bukatzeko, bi kasu azalduko dizkizuet: Lieux Communs eta La Transfo. Lieux Communsekin hasiko naiz. Lieux Communs agente publiko-pribatuen eta gobernu-herritarren harremanak hobetzeko eta bultzatzeko programa bat da. Ez dakit Elinor Ostrom Nobel saridunaren teoria ezagutzen*

duzuen. Baina, hiritarrekiko gobernu lokalek duten jarrera aztertzen duen teoria da. Gure tesia honakoa da: hiritarrek, jende arruntak, zerbitzu publikoak aldatzen ditu Europan. Lehen esan bezala, Europako hainbat hiri bisitatu genituen: Bartzelona, Amsterdam, Wigan, Brusela, Atenas, etab. Bidaia hauetan konturatu ginen gobernu bakoitzak hiritarrekin zuen jarrera eta harremana desberdina zela. Gand hirian gobernuak herritar eta lurraldeko beste eragileekin duen harremana oso interesgarria da, adibidez. Zerbait berria garatu dutela esan dezakegu. Amsterdamen, bestetik, udalaren eta gizarte eragileen arteko harremana desberdina da: donut estrategia deitzen diogu guk. Laburtzen, hiri bakoitzean gobernuaren eta herritar eta beste eragile sozialen arteko harremana oso desberdina zela konturatu ginen."

Stéphane Vincentek bere aurkezpena egiten jarraitu du. *"Hainbat hiri ezagutu eta gero, Frantziara ideia askorekin itzuli ginen. Gobernu eta herritarren arteko harremanen inguruan lan egin nahi genuen. Konturatu ginen espazio eta zerbitzu asko hobetu zitzazkeela gobernu eta herritarrena arteko harremana hobetzen bazen. Espazio berriak sortzea ere posible zela pentsatzen genuen, gobernu eta herritarren arteko harremana hobetzen bazen. Gobernantza berri bat bultzatu behar zela konturatu ginen. Esperimentazioa beharrezkoa zela ere azpimarratu genuen. Horietako esperimentazio bat Sevran hirian egin genuen. Bertan, etxebizitza arazo bat zegoen. Agente pribatu eta publikoen arteko harremanak hobetzea ezinbestekoa zen. Gure hautua gobernantza forma berri bat proposatzea izan zen. Publiko-pribatu harremanez haratago joatea. Erantzukizun partekatua garatu behar zela uste genuen. Programa oso interesgarria izan zen. Hala ere, prozesu oso konplexua izan zen. Gobernantza oso gai konplexu eta zaila da. Hori dela eta, gobernantaz hitz egiten hasi baino lehen, arazoa identifikatu eta arazoaren gainean lan egiten saiatzen gara. Arazotik hasten bagara efizientzia irabaziko dugu. Hala ere, esperimentazio fase baten gaude."*

Stéphane Vincentek esan du *"beste programa bat dago: La Transfoko proiektua. Proiektu hau 2016tik 2020ra bitartean garatu zen. Gobernuen barruko aldaketara zuzenduta dagoen programa bat da. Hainbat gobernuk eskatu ziguten haien baitan ideia laborategi bat garatu nahi zutela. Hala ere, kontuz ibili behar da honekin. Izan ere, Europar Komisioak egin zuen informe baten arabera, gobernuen baitan sortzen diren*

ideia laborategien erdiak ez du funtzionatzen. Horren arrazoia zentralizazioan, gobernantza bertikalean edo beste zenbait ezaugarritan bilatu behar da. Hori dela eta, protokolo berria diseinatu behar genuela konturatu ginen, porrot hori ekiditeko. Ideia laborategi bat sortzeko prozesua urte betekoa izan ohi da. Hainbat prozesu egin ditugu: Parisen, Okzitanian, etab. Denetan prozesua oso antzekoa izan zen. Lehenik eta behin, funtzionarioen artean boluntario bat eskatzen genuen. Prozesu hauetan ikasi genituen zenbait ikasgai azpimarratuko ditut."

Stéphane Vincentek esan du, *"lehenik eta behin, taldeak anitza izan behar du. Formatu behar diren funtzionario talde hori ezin da homogeneoa izan. Hau da, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna egon behar da; lanean asko eta gutxi daramatenak egon behar dute; profil desberdinak egotea oso interesgarria da. Helburua, aniztasuna ordezkatua egotea da. Gainera, funtzionario horiek oso interesatuak egon behar dute aldaketa prozesu horretan. Izan ere, hilabetean bi aldiz lan egiten da, urtebetez. Prozesu hauetan jendea aldatu egiten da. Oso interesgarria da. Botere edo zuzendaritza taldean daudenak, adibidez, asko aldatzen dira. Prozesuaren baitan aldaketa asko geratzen dira. Pertsona batzuek lana uzten dute, edo beste lan batera joaten dira. Bestetik, pertsona askok prozesua hasi eta berehala uzten dute. Beraz, prozesuan garapenean ere aniztasuna dago.*

Stéphane Vincentek aipatu du *"taldeek diziplina anitzekoak izan behar dute. Diziplina desberdinek batera egin behar dute lan. Diziplina desberdinen artean ikasi egiten da. Diseinuaren garrantziaz ere ohartu gara. Horrez gain, esperimentazioaren eta 'egiten ikasiren' formularen garrantziaz ohartu gara. Ekintza bat egiten hasten garenean ez dakigu nolako emaitza aterako diren. Hori dela eta, oso garrantzitsua da ekintzako protokoloa eta zer motatako kontratua ezartzen den hasieran. Finantzazio iturria ere oso elementu garrantzitsua da guretzat: finantzazio iturri desberdinak edukitzen saiatzen gara. Izan ere, finantzazio iturri bat bakarrik dagoenean, iturri horrek (pertsona, erakunde, etab.) prozesu guztia monopolizatzen buka dezake. Hala ere, ez du zertan bi iturri guztiz desberdinetik etorri beharrik. Adibidez, finantzazio iturria erakunde bereko bi edo hiru departamendutik etorri daiteke. Horrez gain, erantzun azkar eta interesatuak ateratzeko presioa sor dezakete zenbait aktorek. Izan ere, beste kultur politiko bat*

daukate, eta emaitzak beste modu batera ulertzea kosta egiten zaie. Askotan aktoreek ez dakite zer motatako lana egiten dugun. Ez dakite aholkularitza enpresa bat edo ikerlari talde bat den. Hori dela eta konfusio batzuk egon daitezke."

Stéphane Vincentek bere aurkezpena egiten jarraitu du. *"Prozesuetan hainbat gai jorratu ditugu: energia trantsizioa, zenbait portaera gaitzesgarriren gutxitzea, herritarren parte-hartzea, etab. Ikasi duguna da kasuan zentratu behar dela. Kasu bakoitza desberdina da, eta kasu bakoitza desberdin jorratu behar da. Kasu gauzatzen goazen heinean joaten gara ikasten. Horrez gain, ekosistemaren babesa oso garrantzitsua da. Baina, hori nola lortzen da? Hori lortzeko ideia batzuk emango ditut. Ideia laborategien arteko sareak eta harremanak oso garrantzitsuak dira, adibidez. Beste berrikuntza laborategiekin zertxobait lehiatzea sanoa eta ona dela uste dut. Sareen garrantzia azpimarratzekoa da. Bestalde, gobernu eta administrazioetan agente bikoitzak bilatzearen garrantzia azpimarratu nahi du. Zer da agente bikoitz bat? Funtzionario edo politiko bat izateaz gain, berrikuntzan parte hartu nahi duen pertsona bat da agente bikoitz bat. Pertsona horiek lokalizatzea oso garrantzitsua izan daiteke. Laburtuz, sareak, pertsona egokiak eta harremanak sortzea ezinbestekoa da. Baina, ezin da kasuetan eta praktikan bakarrik gelditu. Ideia laborategiaren etorkizunaren inguruan hausnartzea ere oso garrantzitsua da. Hausnarketa hauetan etorkizunean parte hartuko duten aktoreak egotea interesgarria izan daiteke."*



Stéphane Vincentek bere aurkezpena egiten jarraitu du. *"Azkenik, prozesuetan ikasi dugun beste elementu bat aurkeztuko dizuet. Azken hau prozesuen denboren ingurukoa da. Izan ere, funtzionario askok ez dute denborarik izaten. Eta, denbora asko baldin badauka, kontuz ibili. Izan ere, posible da pertsona hori egokia ez izatea. Hori dela eta, elementu hau kontuan izatea garrantzitsua da. Denboraren negoziaketa oso garrantzitsua da. Funtzionarioekin denboraren gainean negoziatu beharko da. Honekin lotuta beste elementu bat: prozesua askotan luzea izaten da. Beraz, prozesuan zehar inbertitzen den denborarekin eta indarrekin kontuz ibili beharko da. Gure kasuan, adibidez, funtzionario askok bukaerarako nekatuta bukatu zuten. Hori arrisku bat izan daiteke. Beraz, kontuan hartzeko elementu bat da."*

Stéphane Vincentek, bukatzeko, azken hitz batzuk esan ditu. *"Nire aurkezpenarekin bukatzeko, esan nahi nuke gure web orrian askoz informazio gehiago dagoela. Bertan hainbat dokumentu daude. Gainera, hizkuntza desberdinetan daude. Hori izan da dena. Honekin nire aurkezpena bukatutzat ematen dut. Badakit pixka bat luzatu naizela. Baina, espero dut balio izan dizuela. Galderarik edo dudarik badago, lasai galdetu. Mila esker aurkezpen hau egiteko aukera emateagatik. Eskerrik asko."*

ECO6k hartu du hitza. *"Eskerrik asko Stéphane Vincent zure aurkezpenagatik. Oso interesgarria izan da zure aurkezpena. Orain, taldeetan jarriko gara eta zuk esandakoa gure kasura eramaten saiatuko gara. Bukaeran, plenarioan, taldeetan eztabaidatu dena azalduko da, eta zuk ekarpen batzuk egitea gustatuko litzaiguke. Eskerrik asko."*

Orkestrako erraztaileak hartu du hitza. *"40-45 minutu izango dituzue orain taldeetan eztabaidatzeko. Taula bat banatu zaizue lehen. Bertan idatzi duzuena taldekideekin partekatu eta gero bozeramaile bat aukeratu beharko duzue. Orrietan idazten duzuena gero saioaren bukaeran jaso egingo da. Bai banaka idatzi dituzuen orriak, eta baita taldean idatzi dituzuenak ere. Eskerrik asko."*

5. Talde dinamika

Lehenengo taldea:

Lehenengo taldearen bozeramailea ECO3 da. "*Gure taldea nahiko kaotikoa izan da. Stéphanen aurkezpenaren hasieran partaide bat joan egin da. Bestalde, Etorkizuna Eraikizeko ikerlaria Londresetik etorri berri da eta proiektuan hasiberria da. Hori dela eta, proiektua azaldu behar izan diogu. Aurkezpenari dagokionez, asko gustatu zaigula komentatu dugu taldean. Ideia oso interesgarriak azaldu dituela uste dugu. Stéphanek kultura politiko zaharra eta berria bereizteko taula bat erakutsi eta azaldu du. Gure ustean taula hori klabea da. Aurkezpenean esandako gauzekin oso identifikatuak sentitu gara. Azalpenean ideia interesgarri batzuk aipatu dira: planifikazioaren ordez, proba-errore metodologiaz hitz egin da; adituen ordez pertsona aktibistaz hitz egin da; sistemaz hitz egitea, siloen ordez; galderen garrantzia aipatzea, erantzun solidoen ordez. Ideia guzti horiek gure proiektuan daude. Egiten ari garena, gutxi gorabehera, hori da."*

ECO3k esan du *"azalpena oso sistematikoa izan da. Gu gai hauen inguruan urte gutxi batzuk goaz hitz egiten edo lantzen. Stéphanen proiektuan aldiz, urte askotako esperientzia dago. Bestalde, eragile bikoitzen inguruan hitz egin da. Guri kontzeptu hori oso interesgarria egin zaigu. Ni horietako bat naizela uste dut. Interesgarria iruditu zaigu kontrolaz baino konfiantzaz hitz egitea. Hemen askotan aipatu den ideia bat da. Baina, nola sortzen da konfiantza hori? Etorkizuna Eraikiz Gipuzkoako Foru Aldundiak sortutako proiektu bat da. Hori dela eta, proiektuak sinesgarritasuna dauka. Proiektua 4 urteko logikatik -legealdi logikatik- ihes egiten saiatu da. Hau da, luzera begira planteatu den proiektu bat da. Azken finean, Etorkizuna Eraikiz lurralde proiektu bat da. Gipuzkoako Foru Aldundiak zilegitasun hori irabazi egin du. Hori dela eta, proiektuaren basean konfiantza dagoela esan daiteke."*

ECO3k esan du *"aipatu den beste ideietako bat ere asko gustatu zaigu. Ideia hori hau da: prozesuak pertsonak aldatzen ditu, eta alderantziz. Aurkezpenean aipatu den ideia bat da, eta asko gustatu zaigu. Bestalde, eragile bikoitzen inguruko hausnarketa bat egin dugu. Aurkezpenean eragile bikoitzei egin zaio erreferentzia. Guk, hori, bideratzaileen lanarekin lotzen dugu. Izan ere, bideratzaileak interes desberdinen artean prozesuak errazten dituzte. Oso interesgarria iruditzen zaigu hori."*

Stéphane Vincentek hartzen du hitza. *"Eragile bikoitza askotan erabiltzen dugun kontzeptu bat da. Nahiko hasieratik erabiltzen dugun kontzeptu bat da, gainera. Bestalde, guk berrikuntza sozialaz hitz egiten dugunean uste dugu berrikuntza jadanik badagoela. Hau da, 'hor dagoela' uste dugu. Gure esperientzian oinarrituta honakoa esan dezakegu: antolakunde guztietan –antolakunde burokratikoenak barne- berrikuntza eta kultura berri bat bilatzen duten pertsonak daude. Pertsona horiek ez dute zertan oso hiztunak izan beharrik. Edo ez daukate ideia hori esplizitatzen egon beharrik. Askotan, ideia horiek buruan edukitzea nahikoa da. Askotan, iniziatibaren zain egoten dira pertsona horiek. Beste batzuetan bultzada bat behar dute. Kanadan zenbait azterketa egin dira gai honen inguruan. Azterketa horiek esaten dute berrikuntzarako lehen hazi hori gehienetan badagoela. Baina, ez dira pertsona horiek kanpotik hautatu behar. Egokiena zenbait iniziatiba martxan jartzea da, eta berrikuntzarako nahia*

dutenek parte hartuko dute. Gure ustez, antolakundeetan berrikuntza nahi dutenak normalean zeinu baten zain egoten dira."

Stéphane Vincentek aipatu du *"aldaketarako gogoa belaunaldi gazteetan ikusten da batez ere. Belaunaldi berriek lana eta hiritarra izatea batera ikusten dute. Pertzepzio aldaketa bat dago. Gainera, uste dut ez dela burua hautsi behar berrikuntza nahiko duten pertsonak bilatzen. Askok ez dute berrikuntzarik nahiko, eta nahi dutenak askotan seinale baten zain egoten dira. Berritzaileak diren, baina, bere kondizio hori azaleratzen ez duten, pertsonez beteta daude antolakunde gehienak. Hori dela eta, ekimenak martxan jartzen badira, pertsona horien berritzaile gogoa piztuko da. Orain dela aste batzuk Frantzian txosten bat argitaratu zen. Txosten horretan honakoa agertzen zen: funtzionarioen ehuneko 80aren ustez egiten duten lana tontokeria bat da. Hau da, zentzurik ez duten lanak egiten dituztela uste dute. Txosten hori Frantziako leku desberdinetako 5000 funtzionarioen iritzietan oinarritzen zen. Hau da, nahiko ondo harrapatu dezake irudi globala. Hori dela eta, txostena garrantzitsua da. Lehenagoarekin lotuta, ehuneko 80 horien artean seguru aski hainbat eta hainbat berrikuntzak martxan jartzeko prest daudela. Kultura politiko berri baten bila daude seguru aski."*

Orkestrako erraztaileak hartu du hitza. *"Bozeramaileei eskatu nahi dizuet zuen ekarpena oso labur azaltzeko. Izan ere, ez daukagu denbora askorik. 3 ideia nagusi aipatzea nahikoa da. Horrez gain, Stéphani eskatuko diot egin behar dituen iruzkinak plenarioan egiteko. Bestela ez digu denborarik emango."*

Bigarren taldea:

Bigarren taldeko bozeramailea ECO12 da. *"Lehenik eta behin, aurkezpena asko gustatu zaigula esan behar dugu. Gainera, zure azalpenean azaldu dituzun ideiekin eta espirituarekin oso identifikatuak sentitzen gara. Uste dugu azalpenean aipatu dena oso lotuta dagoela Etorkizuna Eraikizen ekosisteman egiten dugun lanarekin. Aipatu dugun lehen ideia hau da: kultura politiko berri bat ezartzea aldaketa oso sakona da. Kontuan hartu behar da prozesu bat dela, eta ez ekintza konkretu bat bakarrik. Sortzaileak izan*

behar dugu. Aipatu dugun beste ideia garrantzitsuetako bat konpromisoa sortzeko beharra da. Eta, azkenik, metodologiaren arloan, ideia hau gustatu zaigu: komunikazioa dokumentazioaren ordez. Komunikazio korporatiboaren ideia asko gustatu zaigu. Input interesgarria dela uste dugu. Taldean hitz egin dugun beste gaietako bat prozesuan sortzen ditugun emaitzak dira. Nola neurtzen ditugu? Emaitza horiek eragina erakusten al dute? Hauek izan dira taldean planteatu ditugun gaiak. Eskerrik asko."

Hirugarren taldea:

Hirugarren taldeko bozeramailea ECO14 da. *"Gure taldean ere zenbait ideia interesgarri agertu dira. Aurkezpenean enbaxadorearen inguruan hitz egin da. Etorkizuna Eraikizen gehiago hitz egiten da bideratzailearen edo erraztailearen figuraren inguruan. Beste alde batetik, aurkezpenean taldeek anitzak izan behar dutela aipatu da. Diziplina anitzeko ikuspegiaren onurak aipatu dira. Beste alde batetik, aurkezpenean azaldu den taula aipatu da. Taula horretan zenbait elementu kontrajarri dira: kultura zaharrean bikaintasuna premiatzen zen; kultura berrian, aldiz, galderak egitea. Aurkezpenean esan da gaur egungo arazo gehienak konplexuak direla. Konplexutasunari aurre egiteko jarrera kritikoa izatea, hau da, galderak egitea, hainbat diziplinetan bikaintasuna duten pertsonak edukitzea baino efektiboagoa izan daiteke."*

ECO14k aipatu du *"taldean erantzukizun partekatuaren inguruan eztabaidatu da. Uste dugu oso kontzeptu interesgarria izan daitekeela. Bestetik, taldean aipatu den beste ideietako bat hau da: gizartearekin nola harremandu. Aurkezpenean asko insistitu da gai horretan eta guk ere uste dugu oso garrantzitsua dela. Eta, bukatzeko, Etorkizuna Eraikiz proiektu guztiak lotzen eta estaltzen dituen aterki bat izan behar dela komentatu dugu taldean. Hau da, proiektu desberdinen arteko loturak eta sinergiak bilatu beharko dira, eta lotura horiek emateko gunea Etorkizuna Eraikiz izan daitekeela uste dugu."*

Laugarren taldea:

Laugarren taldeko bozeramailea ECO13 da. *"Gure taldean aipatu den ideietako bat aurkezpenean azaldu diren galdeketak dira. Galdeketa horiek prozesuan integratzen*

zirela aipatu da aurkezpenean. Horrekin lotuta, Foru Aldundian askotan hausnartzen da honako hau: zer pentsatzen dute Aldundian lan edo parte hartzen dutenek Etorkizuna Eraikizen inguruan? Zentzu horretan, galdeketa bat egitea interesgarria izango litzateke. Honela, Aldundian lan egiten duten pertsonek Etorkizuna Eraikizen inguruan zer pentsatzen duten jakingo litzateke. Ez dakit zehazki zein departamenduk egin dezakeen lan hori. Estrategiaren departamenduak akaso. Baina, interesgarria izango litzateke galdeketa horietatik ateratzen den informazioarekin lan egitea. Bestetik, aipatu diren galdeketa horiek mapeo ariketan zeresan handia izan dezaketela uste dugu."

ECO13k esan du *"aurkezpenean lankidetzazko gobernantzaren inguruan ere hitz egin da. Aipatu da lankidetzazko gobernantza hori Europa mailako zenbait proiektutan aplikatu dela. Informeak egiteko beharra ere aipatu da. Zentzu horretan, Etorkizuna Eraikizeko ikerlariaren papera garrantzitsua izan daitekeela aipatu dugu taldean."*

Orkestrako erraztaileak Stéphane Vincenti eman dio hitza. Zenbait ekarpen egin dituzte bozeramaileek. Plenarioaren helburua ideia horien inguruan Stéphane Vicentek zenbait hausnarketa egitea da. Stéphane Vincenten ekarpenekin bukatuko da saioa.

6. Balorazioa eta amaiera

Stéphane Vincentek hartu du hitza. "*Interbentzio guztiak oso interesgarriak izan dira. Bukatzeko gomendio bat ematea gustatuko litzaidake. Funtzionarioekin lan egiteko orduan, hasi berrikuntza bezalako kontzeptuekin. Izan ere, bestela zenbait nahaste gerta daitezke. Beraz, nahaste horiek ekiditeko, berrikuntza bezalako kontzeptuak erabiltzea gomendatzen dizuet. Bukatzeko, gustatuko litzaidake esatea nire helburua ez dela izan zuei gomendioak ematea. Izan ere, gu ere oso interesatuak gaude Gipuzkoan egiten duzuenarekin. Adibidez, zuen proiektuaren inguruko artikulu bat idatzita daukat aldizkari batean. Bertan, Gipuzkoa eta Euskadiren estrategien inguruan idatzi dut. Horrekin esan nahi dut gu ere interesatuak gaudela Gipuzkoan egiten diren proiektuekin. Zuek ere zuen esperientzia gure lurraldean partekatzea gustatuko litzaiguke. Hori dela*


eta, esan daiteke interesa bi norabidekoa dela. Hausnarketa honekin bukatuko dut. Mila esker gonbidatzeagatik. Plazer bat izan da."

Estrategia eta Ikerketako arduradunak hartzen du hitza. *"Eskerrik asko Stéphane. Nahiz eta saio erdia galdu dudan, oso interesgarria izan da esan duzun guztia. Uste dut egin duzun aurkezpena lehendik oso landua zegoela. Etorkizuna Eraikizentzat, eta baita ere bertan parte hartzen duten stakeholder desberdinentzat, oso interesgarria izango da zuen antolakundearekin harremanetan jarraitzea. Espero dugu hurrengo saioa aurrez-aurre egitea. Bestetik, gaurko saioan parte hartu duzuen guztioi ere eskerrik asko. Mila esker berriz Stéphane, eta hurren arte!"*

7. Eranskinak

a. Saioan erabilitako aurkezpena





La 27e Région : aurkezpena eta ikuspegi nagusia

Gure bidaia eraldaketa publikoaren lurretan:

etapak eta ibilgailuak

Bi kasu:
Lieux Communs,
La Transfo

LA 27E REGION HITZ GUTXITAN

2008an sortutako irabazi asmorik gabeko elkartea


Laborategi bat eraldaketa publikorako eta berrikuntza sozialerako

10 lagunek osatutako diziplinarteko talde bat eta 150 profesionalek osatutako jardunbide komunitate bat

Urteko 1 milioi euroko aurrekontua, gutxi gorabehera
40 kide korporatibo (tokiko gobernuak, administrazio publikoak eta estatuko zerbitzuak), banakako 60 kide

Jarduera nagusiak: landa ikerketa, ezagutza partekatzea, narratiba berriak sektore berrirako, jardunbide komunitatea erraztea




Utopia zehatz bat: sektore publikoan nagusi diren kulturak aldatzea
BIKAINTASUNA
BURU ARGITASUNA
BEHARRAK
PRAKTIKAK
EBAZTEA
CUESTIONAR
MONOKULTURA
DIZIPLINARTEKOTASUNA
ADITUAK
ERABILTZAILEAK
SILOAK
SISTEMA
KONTROLA
KONFIANTZA
PLANIFIKAZIOA
SAIAKUNTZA ETA ERRAKUNTZA


La 27e Région : aurkezpena
eta ikuspegi nagusia
Gure bidaia eraldaketa
publikoaren lurretan:
etapak eta ibilgailuak
Bi kasu:
Lieux Communs,
La Transfo



Gure bidaia eraldaketa publikoaren lurretan:
Urratsez urrats, epe luzean


Gure bidaia eraldaketa publikoaren lurretan:
Urratsez urrats, epe luzean
berrikuntza metodoak
(Territoires en Résidences)
2014
2008


Gure bidaia eraldaketa publikoaren lurretan:
Urratsez urrats, epe luzean
2019
berrikuntza ahalduntzea
(La Transfo, Les Eclaireurs eta abar)
berrikuntza metodoak
(Territoires en Résidences)
2014
2008


Gure bidaia eraldaketa publikoaren lurretan:
Urratsez urrats, epe luzean
gobernantzako berrikuntza
(Enacting the commons...)
202?
2019
berrikuntza ahalduntzea
(La Transfo, Les Eclaireurs eta abar)
berrikuntza metodoak
(Territoires en Résidences)
2014
2008


Nola jo noranzko berri batera:
3 ataleko prozesua
«Gobernantzako hobekuntza»ren adibidea
3. Ekintza kolaboratiboko ikerketa programa
Lieux Communs, 2020an
2. Partaidetza inkestak
Enacting the commons 2018an
1. Webinarra(k)
Lehen webinarra 2017an


Webinarrak: gai berri baten zertzeladak emateko era praktiko bat
« Community Wealth Building »
La cultivation de la richesse locale
Isaac Stanley
CLES
«New governance in North UK» webinarra (2018ko ekaina)

Partaidetza inkestak: datuak biltzea eta etorkizuneko koalizioak eratzea

«Sonar» (2018)
- Berrikuntza publikoaren inguruko eztabaidak
- esploratzen
  Aurrekontua: 20 000 €

«Enacting the commons» (2018-2019)
- Europa osoan gobernantza mota berri bat
- esploratzen
  Aurrekontua: 120 000 € (Erasmus+)

«Embedded lawyers» (2020)
- Lege-sormena ondasun
- komunetarako
  Aurrekontua: 100 000 €

«Neighborhood solidarities» (2021-2022)
- Auzoko elkartasun-praktikak esploratzen
- Aurrekontua: 50 000 €

Ekintza kolaboratiboko eta ikerketako programak, gure ibilgailu nagusiak eraldaketa publikoa esploratzeko

Funtsezko printzipioak:

- Tokiko 3-10 autoritate biltzen dituzten kontratuetan oinarrituak
- Zeregin ezberdinak: hirugarren bat (la 27e Région), berrikuntzako talde profesionalak (egoiliarrak), borondatezko funtzionario taldeak (enbaxadoreak), tokiko gobernuak, kofundatzaileak eta abar
- Batez besteko iraupena/aurrekontua: 1-4 urte / 100 000 €-3,6 milioi €
- Ikerketa protokolo bat, nagusiki etnografian, soziologian, zerbitzuen diseinuan (+ beste diziplina batzuk: hirigintza, zientzia politikoak, arteak, teatro foroa eta abar)
- Dokumentazioa komunikazioa baino gehiago: blog jarduerak, eskuliburuak, bideoak eta abar

Ekintza kolaboratiboko eta ikerketako programak, gure ibilgailu nagusiak eraldaketa publikoa esploratzeko

«Territoires en Residences» (2008-2016)
- Murgiltze asteak eta kodiseinua erronka publikoetan
- adib.: Pionsat herrian osasun zerbitzuak hobetzea
- 20 egonaldi, aurrekontua guztira: 1,3 milioi €

«La Transfo» (2014-2016, 2016-2020)
- Gobernuak eraldaketa gaitasunekin ahaldunduz
- Adib.: Paris Hiria, Okzitaniako eskualde gobernua eta abar
- Bi edizio, tokiko 13 gobernu, aurrekontua guztira: 3,6 milioi €

«Les Eclaireurs / The Frontliners» (2016-2019)
- Erritual burokratikoetarako etorkizun desiragarriak imajinatzen
- Gaiak: ebaluazioa, erosketak, plangintza, kudeaketa
- 5 Eclaireur, aurrekontua guztira: 200 000 €

Ekintza kolaboratiboko eta ikerketako programak, gure ibilgailu nagusiak eraldaketa publikoa esploratzeko

«(Dé)formations» (2021-2022)
- Politikarientzako prestakuntza, gobernatzeko modu berrietarako (400 000 €)

«Public Reflexes» (2020) eta «Public Capacities» (2022)
- Pandemia garaietako tokiko gobernuaren barruko berrikuntza praktikak
- Aurrekontua: 200 000 €

«Lieux Communs» (2021-2023)
- Gobernantza irekia eta «sektore publikoaren eta ondasun komunen lankidetza» probatzea
- Aurrekontua guztira: 400 000€

27e Région: aurkezpena eta ikuspegi nagusia

Gure bidaia eraldaketa publikoaren lurretan:

etapak eta ibilgailuak

Bi kasu:
Lieux Communs,
La Transfo

1. kasua: Lieux Communs, programa bat «ondasun komunen eta sektore publikoaren» arteko lankidetza sustatzeko eta probatzeko (2020-2023)



«Enacting the commons», inkesta kolaboratibo bat, esploratzeko ondasun komunak nola bihurtzen diren zerbitzu publiko Europan


(Erasmus+)




1. kasua: Lieux Communs, programa bat «ondasun komunen eta sektore publikoaren» arteko lankidetza sustatzeko eta probatzeko (2020-2023)
Ibaia?
Hiri nekazaritza?
Hiriko basoa?
Etxe birziklatzailea?
Espazio publikoa?
Lorategi partekatua?
Kantina partekatua?
Hirigintza taktikoa?
Elkartasunezko zerbitzua?
Espazio partekatuak?
Hirugarren lekuak?
Coworking espazioak?
Mugikortasuneko autozerbitzua?


1. kasua: Lieux Communs, programa bat «ondasun komunen eta sektore publikoaren» arteko lankidetza sustatzeko eta probatzeko (2020-2023)
Barruan hartzen du etxebizitza sozialetako espazio komunen inguruko esperimentazioa (500m²), Sevrango Ualarekin, Seine Saint-Denis konderriko kontseiluarekin, jabe sozialekin (Vilogia, CDC Habitant eta abar)

2. kasua: La Transfo, protokolo bat berrikuntzako laborategiak sortzeko tokiko gobernuetan (2016-2020)



La Transfo / 1. printzipioa: Funtzionario talde heterogeneoak engaiatzea eta prestatzea



#boluntarioak
#ekintza-prestakuntza
#adimen kolektiboa

Ikasi duguna:
- La Transfo-k eragileetan izandako eragina
- Dibertsitate egokia (baina gizon eta C kategoriako gutxiago)
- Bat ez baizik eta bi edo 3 boluntario zirkulu
- Kolektiboaren indarra
- Helburuaren nahasmena: prestakuntzara edo proiektuetara bideratua?
- Nahikoa al dira 20 enbaxadore?


La Transfo / 2. printzipioa: Diziplina anitzeko ikuspegia hartzea



#diseinua
#gizarte zientziak
#jardunbide alternatiboak
#coaching
#partaidetzako hirigintza
#helduen heziketa
hiriko politikak

Ikasi duguna:
- Diseinuak menderatutako ikuspegia
- Hausnarketa maila handia behar da
- Diseinuarekin lotu gabeko jardueretan sakondu behar da
- Etorkizunean: merezi du ezohiko trebezien talde bat sortzea (hezkuntzako ingeniaritza, neurozientziak, komunitate antolakuntza eta abar)

La Transfo / 3. printzipioa: Esparru esperimentala eta «eginaz ikastea»rena



#erantzunkidetasuna
#autonomia
#babesa

Ikasi duguna:
- Protokoloa errespetatu egiten da gobernantza indartsua bada (kontatuak, kofinantzazioa, hiriarteko esparrua, 27e Région
- hirugarren gisa eta abar)
- Presio indartsu(egi)a emaitzak lortzeko
- Lehen eskutik elkarrizketa kualitatibo gehiago sortzeko beharra
- Funtzionario liderra laborategiko etorkizuneko burua da? Etorkizunean: laborategi bat funtzionarioentzat?

La Transfo / 4. printzipioa: Kasu jakinak lantzea



#mobilizazioa
#eraginak
#engaiamendua
#gogo bizia
#trebeziak transmititzea
#babes politikoa
#kanpoko lankidetza
#laborategiko kudeaketa probatzen

Ikasi duguna:

- Ezin konta ahala gai: energia berrikuntza hobetzen (Lille), zibismorik eza murrizten (Mulhouse), bizikleten autozerbitzuaren esparrua berrezartzen (Metz), eskola harpidetzako sistema (Estrasburgo) eta abar
- Baldintza indartsuak proiektuen arrakastarako
- Kasu praktikoak kontzeptu probak dira etorkizuneko laborategirako

La Transfo / 5. printzipioa: Babesa topatzea ekosisteman



#barneko «agente bikoitzak»
#kanpoko ekosistema

Ikasi duguna:

- Laborategien arteko eskualdeko sareen gorakada (Region Grand Est, Occitania) eta, are gehiago, baita gobernuen arteko laborategiak ere (Grenoble)
- Lehia txikia beste berrikuntza talde batzuekin (adib. datu irekiak)
- Batzuek zeregin gakoa dute konexioak sortzen
- La Transfo-ren iraupena ez da nahikoa lankidetza sendoak sortzeko Etorkizunerako: barne eta/edo kanpo berritzaileak engaiatzea, «I+G ekosistemen» oinarria jarriz

La Transfo / 6. printzipioa: Etorkizuneko laborategiaren proiekzioa



#laborategiko gobernantza probatzen
#saio dedikatuak
#erabaki estrategikoak


Ikasi duguna:
- Prozesu errepikakorra, legitimotasuna garatzeko helburua duena
- Etorkizuneko erabiltzaileak eta kideak laborategia egiten engaiatzearen garrantzia
- Sarritako emaitza: laborategiko erabiltzailearen bidaia
- Gobernantzaren mundu errealera itzultzea bortitz suertatzeko arriskua
- Beharrezkoa litzateke funtzionarioen (eta agian herritarren) engaiamendu handia

La Transfo / 7. printzipioa: Erritmo onena topatu



#akupunturan oinarritua
#bizkortasuna

Ikasi duguna:
- 20 funtzionario 14 saiotan, 18 hilabetean (2-3 egun bakoitzak)
- Kasu saioak / Ikasketa saioak / Laborategi saioak (+ doiketak)
- Metodo berriak ikasten: (oso) ona
- Mobilizazioa: ona, baina mailaka apaltzen
- Laborategiko kosorkuntza: goizegi administraziorako
- Exijentzia handikoa logistikari eta landa lanari dagokionez


Informazio gehiago:
https://transfocodesource.la27eregion.fr/english.html
LA TRANSFO • CODE SOURCE
SOURCE CODE ABOUT FAQ OUR COUSINS FR
Welcome to the La Transfo Code Source website - this program is about testing and co-creating an innovation lab within a public administration.
AN EXPERIMENTAL FRAMEWORK
A MULTI-DISCIPLINARY APPROACH
PACE PROGRAM ROLLOUT
INVOLVE AND TRAIN THE PUBLIC AGENTS
WORK ON THE BASIS OF CONCRETE CASES
FIND SUPPORT FROM THE ECOSYSTEM
ANTICIPATING FOR THE FUTURE LAB


Eskerrik asko arretagatik!
svincent@la27eregion.fr
Twitter : La27eregion
www.la27eregion.fr
LA 27e
RÉGION

b. 16. lan dokumentua

THINK TANK

Kultura politiko berriaren inguruko deliberazio prozesua: 16. Lan Dokumentua

FASE BERRIKO HIRU PROIEKTUAK: ZER IKASI DUGU LE 27en REGION-en ESPERIENTZIATIK?

(2021eko azaroaren 24a)

Sarrera

Lan dokumentu hau 2021-2023 faseko hirugarrena da eta deliberazio taldeak 2021eko azaroaren 24an le 27en Region-en esperientzia aztertu ondoren egindako hausnarketak eta haien inguruko lanketa bat jasotzen ditu.

Metodologiaren ikuspegitik, saio honetan kanpoko esperientzietatik ikastean jarri zen fokoa, aurreko saio batzuetan adituen ekarpen, marko eta kontzeptuetatik ikasteko eginiko ahaleginen osagai.

Saioan zehar esandakoak memorian daude jasota, ez dira beraz dokumentu honetan errepikatzen. Dena den, saioan egon ez ziren irakurleentzat, komenigarria da lan dokumentu hau irakurtzerako memoria ere eskura izatea.

Stephane Vincent hizlariaren aurkezpena entzun ondoren, taldekideek fase honetarako proposatu diren hiru proiektuetarako interesgarrienak iruditzen zitzaizkien ikasketak partekatu zituzten. Hiru proiektu hauek 14. Lan dokumentuan aurkeztu ziren eta izenburu hauek dituzte:

- GFAko barne eraldaketarako prozesua
- Lurraldeko mapatze prozesua
- Deliberazio taldearen eragina lurraldean

Datozen ataletan proiektu hauetako bakoitzeko jaso diren ekarpenak azaltzen dira, amaieran hauen inguruko sintesi bat egiteko.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN BARNE-ERALDAKETARAKO INTERESGARRIAK DIREN IKASKETAK

a) TALDE/ESPAZIO EGOKIEN DEFINIZIOA (17)

Ekarpenetan gehien jaso den elementua talde edo espazio egokien definizio beharra da, espazio hauetara pertsonak nola erakarri eta haiek nola inplikatu ere lantzen delarik. Boluntarioak topatzea eta funtzionario enbaxadoreen papera aipatzen da eta lan egiterakoan siloak gainditzeko beharra ere bai.

- Egitura administratibo / giza talde egokiak sortu behar dira: zein da kasuan aipatu den laborategiaren baliokidea gurean?
- 1,5 urtetan simulatu gobernu barruan laborategi bat izateko prozesua (talde heterogeneoa formatu eta inplikatu, boluntarioak / action training/ multidisciplinary approach)
- Talde bat proiektatu aurrerantzean ere GFAren barruan non ez den momentuko proiektu bat bakarrik landuko, baizik administrazioaren eraldaketaz arduratuko den
- Etxe barruan laborategi bat, zein da? Zein lotura du think tankarekin?

- Boluntarioak topatu, formatu eta inplikatu behar dira
- Giza baliabideen, langileen inguruan lanketa berezia egin behar da
- Teknikariak, funtzionarioak inplikatu prozesuan
- Erakunde barrutik, eragileen prestutasuna benetakoa izan behar da
- Trust (konfiantza)
- Konfiantzaren lanketa giza taldeen markoan

- Funtzionario embaxadoreak interesgarriak iruditu zaizkit, erreferente pertsona da
- Funtzionario enbajadoreen lana, ezagutza horiek beharrezkoak dira elkarrekin aritzeko horretan

- Siloak gainditzea garrantzitsua da, hori egingo duen sistema, ikuspegi sistemikoa, behar da
- Diziplina anitzak osagarritu
- Taldeek anitzak behar dute
- Siloen logika gainditzea eta sistema bakarrarena barneratzea
- Involve future users

b) LAN METODOLOGIA (10)

Lan metodologiaren inguruan ere ekarpen ugari egin da. Esperimentazioa eta reflexibitatearen garrantzia azpimarratzeaz gain, ekintzatik eta esperientziatik ikastearen garrantzia azpimarratu da, ekintza ikerketa ere aipatuz. Prozesua dokumentatzearen garrantzia ere aipatu da.

- Esperimentazioa bide bezala
- Esperimentaziorako espiritua
- Erreflexibitatea landu behar da, teoria eta praktika lotu
- Kuestionatzea garrantzitsua da
- Ekintza ikerketa programa garatzea planteatzen da (hau gutxienez 3 eta gehienez 10 toki erakunderentzako baliagarriak diren programetan garatzen ditugu)
- Ekintza ikerketaren bidez, geuk egin prozesua, horretarako enpoderamentua
- From planning to experiential thinking, trial and error
- Shift from an idea of excellence to practice
- Learning by doing
- Lanketa komunikatu ordez, lehentasuna prozesuaren dokumentazioan

c) EKOSISTEMAREN PAPERA / GARAPENA (9)

GFAren barne eraldaketaz aritu arren, ekosistemaren garrantzia ere asko aipatu da, barne eta kanpo ekosistemen lankidetza proposatuz. Bereziki aipatu dira, eragile moduan akademia eta gobernu lokalak. Agente bikoitzak edo ekosistemako bi espaziotan diharduten eragileen garrantzia aipatu da eta baita webinar bidez ekosistema indartzeko aukera ere.

- Barne eta kanpo ekosistemen arteko lankidetza
- Lurraldea, ikuspegi orokorra
- Ingurumen egokia (support from the ecosystem)
- Ekosisteman txertatu isolaketa ekiditeko

- Eragile desberdinekin lan egin behar da
- Eragile desberdinekin kolaboratu: akademia…
- Gobernu lokalak laborategien bazkide izateko aukera

- Webinarren antolaketa erabili daiteke aliatuak lortzeko
- Double agents edo eragile bikoitzen rola, zerbitzu publikoa eta berrikuntza demokratikoa modu bateratuan lantzeko erraminta

d) DENBORA / PROZESUAREN EPEAK (8)

Sarri aipatu den beste ikasketa bat eraldaketa prozesuen epeen eta denboraren kudeaketaren ingurukoa da. Gehien aipatzen dena prozesu hauek epe luzekoak direla ulertzearen garrantzia da.

- Kultura aldaketa sakona epe luzekoa eta eskalatua da, argi izan behar dugu
- Bide bat da, epe luzekoa eta taldean eman behar dena
- Denboraren kudeaketa: prozesu luzeegiak al dira? Zein dira honen inguruko zailtasunak?
- Berrikuntza metodologikoak denbora asko behar izatea dakar
- Denboraren kudeaketa egokia, denbora inplikazioa lantzeko
- Epe luzerako eskemetan kokatzea egin beharreko ekintza
- Saiakerak (trial and error) duen denboraren beharra. Nola landu prozesua krisi garaian?
- Iraunkortasuna

e) ERALDAKETA / EMAITZAK (6)

Epe luzeko apustuen ondoan, eraldaketa ondo ulertzearen beharra ere esan da, eraldaketaren teoria barriak behar ditugula eta eszelentziaz harago eraldaketa bilatu behar dugula esanaz. Emaitzak lortzeko presio gehiegizkoak eta parte hartzaileen espektatibak kudeatzearen garrantzia ere aipatzen da.

- Transformazioaren beharra ondo ulertu behar da
- Eraldaketaren teoria berriak behar ditugu
- Aldaketaren teoria berriak txertatzea

- Eraldaketa landu eszelentziatik haratago, galdetu egiten dugun guztiaz, ezbaian jarri
- A (too) strong pressure to get results
- “La Transfo” esperientzia: what about expectations of the participants? Frustration many times due to participating for nothing

f) BOTEREA ETA JERARKIAK (4)

Boterea eta jerarkiak kontuan hartzearen garrantzia ere aipatu dute parte hartzaileek.

- Jerarkiak desberdinak ote dira Frantzian eta hemen?
- Gobernantzaren berrikuntzarako, langileak ahalduntzeaz gain, boterearen alorrean eraldaketa beharrezkoa da
- It is not enough to empower civil servants, you also have to empower and change the power
- Change power and how it is shared or not

g) FORMAKUNTZA ETA JAKINTZAREN TRANSMISIOA GFAn (4)

GFAn formakuntza prozesuak egin eta jadanik dagoen jakintza partekatzearen interesa azpimarratu da.

- Transmisioa landu behar da. Jakintza badago etxe barruan, adibidez Sebas eta Ander eta duten laborategiaren inguruko jakintza aipatu da, nola txertatu prozesuan? Kudeatu egin behar da
- Lurralde garapenerako laborategiak baditu ikasketak aipatu diren gaietan, handik ikasi?
- Politikoen formakuntza bultzatzea komeni da
- Politikarien formakuntza gobernatzeko eredu berrietan

h) PROIEKTU KONKRETUEN GARRANTZIA (3)

Gai eta proiektu konkretuen inguruan lan egitearen garrantzia aipatu da.

- Proiektu konkretuetan tangibilizatu behar da, baina, irudi zabalago batean ikusi beharra dago, proiektu asko aktibatu, ez bakarra
- Kasu espezifikoetan lan egitea, zeharkako lantalde prozesuak ezarriz
- Gai konkretuei heldu

i) ERAKUNDE PUBLIKOAK /ADMINISTRAZIOA (3)

Erakunde eta administrazio publikoari zuzenean loturiko ikasketak ere partekatu dira.

- Administrazioarentzat baldintzak, barne legedia, prozedurak sortu behar dira
- Proposamena, erakunde publikoak ahalduntzea berrikuntza sozialaren ikuspegitik
- Ritual burokratikoen inguruan legedien moldaketa malgua (vs ziurtasun juridikoarekin topo)

j) EGOERA EZAGUTZEKO GALDEKETEN ERABILERA (3)

Bestalde, aurkeztu den proiektuan eginiko galdeketek ere interesa piztu dute.

- Galdeketa zabal bat egin daiteke GFAn, zer da Etorkizuna Eraikiz, nola ikusten dute GFA kideek?
- Ikasketa helburu dela, eskuartzen laguntzeko, galdetegiak jaso gobernantza ereduen informazioa izateko
- Galdeketak egitea GFAko denei

MAPATZE PROIEKTUAN LAGUNTZEKO INTERESGARRIAK DIREN IKASKETAK

a) EKOSISTEMA INDARTU ETA BERTAN LANKIDETZA GARATZEARI LOTURIKOAK

Mapatze ariketaren inguruan asko azpimarratu da partaidetza, erantzukizun partekatua, gobernantza, indarren akumulazioa lantzearen garrantzia. Gobernantza prozesu honen ardatz moduan hartzerakoan ikusten diren zenbait zailtasun ere azaleratu dira. Azkenik, zenbait eragileren garrantzia nabarmendu da, agente bikoitzak eta udalak aipatuz, eta prozesuaren "jabetza" eta "herrigintzaren" inguruko hausnarketak partekatu dira.

- Create partnerships
- Corresponsability
- Erantzukizun partekatua interesgarria da
- Strong governance
- Mapa bat inportantea da indarrak akumulatzeko
- Ekosistema frakzionatzeak lana erraztuko digu

- Gobernantza arazo bat dela ez dute ulertzen, hurbilpena beste modu batean egin
- Adibide honek laguntzen du arazoak gobernantzaren gaiarekin lotu eta hurbilpena nola egin ulertzen
- Gobernantza eredu berriak diseinatzeko praktika komunitarioa

- Double agent+ ecosystem
- Udalen figura zein da harreman honetan?
- Prozesuaren jabetza prozesuaren finanatziazioarena da, ez soilik Etorkizuna Eraikiz mapeatu
- Gizarte zibilarekin lotura bilatu, guk herrigintza deitzen diogunean lotura berriak bilatu, "herrigintza" aktualizatu

b) METODOLOGIA

Mapatze prozesua nola garatu daitekeenari buruz ere egon dira ekarpenak. Horretarako lagungarritzat ikusi dira aurkezpenean proposatutako pausoak eta ikuspegi dinamikoa. Dokumentazio eta sistematizazioaren garrantzia azpimarratu eta disziplina aniztasuna ere aipatu da, bereziki funtzionarioen, ArantzazuLab-en eta La 27en Region beraren paperei erreferentzia eginez. Kasu konkretuetan oinarriturik lan egitearen garrantzia aipatu da hemen ere.

- Prozesuko pausoak ikasketa iturri izan daitezke
- Planteatutako hainbat lan prozesu, metodo [interesgarriak dira]

- Governance innovation: 3 steps process (collect data, webinar, participatory suveys, collaborative action research programs)
- Proiektuaren ikuspegia definitzeko eboluzio ikuspegia izatea, prozesu ikuspegia
- Ez lana egin argazki estatikoekin, baizik eta dinamikekin
- Ezin dugu pretenditu ez-kolaborazio egoera batetik kolaborazio egoera batera zuzenean igarotzea, transformazioa eskalatu egin behar da

- Dokumentazio eta kontaketaren papera landu behar da, komunikatzeko modu berriak aurkitu
- Sistematizazioan zentratzea (marketinga at utzita), konfidantza eta sinesgarritasuna bueltatze aldera

- Garrantzitsua izango da prozesu honetan diziplina anitzetako profilak elkarlanean jartzea

- Arantzazulab eragile neutro bezala ikusteak prozesua indartu dezake
- Funtzionarioen inplikazio eta berrikuntzarako gogoa
- La 27en Region-ekin lankidetza garatu, dituzten txostenetatik ikasteko
- Egon al daiteke la 27-en region gure ekosisteman? (nazioarteko lankidetza)

- Kasu konkretuetara joan behar da eta hauetatik egin mapeoa
- Proiektu konkretuetan lan egiteak emaitzak tangibilizatzeko aukerak areagotzen ditu

- Teknika anitzak eta metodologia kualitatiboak erabiltzea narratibak eta herritarren motibazioetara “iristeko”
- Erronka: norbanakoen konpromisoa lantzea
- Konfiantza eta sinesgarritasuna landu, etxe barrura ere eraldaketa gauzatzeko

PARTAIDE BAKOITZAREN ERAKUNDEAK ETA PARTAIDE BAKOITZAK EKOSISTEMAN DUEN PAPERA SENDOTZEKO INTERESGARRIAK DIREN IKASKETAK

EMAITZAK

Prozesu honetatik espero ditugun emaitzak argitzea komeni da, emaitza moduan Etorkizuna Eraikiz saretzea proposatzen da.

- Emaitzak = froga, zer dira emaitzak? Nola neurtzen ditugu?
- Etorkizuna Eraikiz saretu, aterki moduan hartuz

PARTAIDEAK ETA IZAERA KOMUNITARIOA

Pertsona berrien inkorporazioa aipatzen da, diziplina aniztasuna eta pertsona gakoak aipatuz, baita gaur egun parte hartzen duten zentroen papera sakontzeko beharra ere.

Hau egiterakoan, banakako konpromisoa eta maila kolektiboa, biak, garrantzitsu izango dira.

- Diziplina arteko profilak
- Agian taldeetara beste perfil batzuk ekartzea
- Ideia orokorra: pertsona gakoak inkorporatzea, konexio gaitasunagatik, interesagatik, motibazioagatik, postuagatik…
- Non sortzen dugu izaera komunitarioa?
- Think tanka eta ikerketa/esperimentaziorako zentroen arteko lotura sakonago landu proiektuetan: ALC, ArantzazuLab, Badalab, Sinnergiak, Orkestra, Deustu, MU, EHU… zein paper dugu ekosisteman?
- Erronka nagusiena banakoen konpromisoa lantzea da
- Kolektiboa funtsezkoa da gure lanean

METODOLOGIA

Metodologia lantzea epe luzeko prozesu moduan azaldu da, horretarako denbora guk ere hartu al dezakegun galdetuz. Esperimentazioaren garrantzia aipatu da. Dokumentazioaren inguruan ere hausnartu da, komunikazioarekin duen loturaz galdetuz. Konexioak, formakuntza lantzea eta, berriro ere, proiektu konkretuekin lan egitearen garrantzia azpimarratu dira.

- 2008tik 2014ra metodologia afinatzen (trying the methodology) aritu ziren. Guk ere egin al dezakegu horrelakorik?
- Denboraren elementua kontuan eduki
- Plangintzatik trial and error

- Neutral place for experimentation
- Esperimentazioa eta aldaketaren logika norberaren (civil servant) eta kolektiboa den inteligentziarekin

- Dokumentatu vs komunikatu
- Documentation, blogging, playbooks

- Konexioak handitu behar dira, loturak
- Formakuntza eta kapazitazioa landu
- Proiektu konkretuetatik emaitza konkretuak reskatatzeko gaitasunak sortzea

SINTESIA

Aurreko proposamenak proiektu bakoitza errazteko ardura hartu duen deliberazio taldeko partaideari edo deliberazio talde osoari jarritako galdera moduan sintetizatu dira, galdera hauek saioetan zehar erantzuten joateko asmoarekin.

Sintesia lantzerakoan, saioko ekarpenak aurreko saiokoekin (ikus 15. Lan dokumentua) kontrastatu dira, zenbait errepikatu egin baitira.

Gipuzkoako Foru Aldundian barne eraldaketa errazteko arduradunari:

a) Zein da GFAren baitan barne eraldaketa landuko duen **egitura/espazio/gizatalde egonkorra** (**eraldaketa epe luzean** landuko duena)?
b) Nolakoa da **aniztasuna** espazio horretan? (politiko/teknikoak, alor desberdinetako pertsonak, GFA barrukoak/kanpokoak)
c) Pentsatu al duzu **funtzionario enbaxadoreen** paperean?
d) Aurreneko puntuaren osagarri, zein da epe laburrean deliberaziora ekarriko duzun **proiektu konkretua**?
e) Zein dira proiektu honetatik espero dituzun **emaitza konkretuak**?
f) Nola eta noiz txertatu daitezke emaitza hauek **barne legedi/prozeduretan**?
g) Zein da guretzat, deliberazio prozesuko **ekosistema**ko eragileontzat, ikusten duzun papera proiektu honetan?

Mapatze proiektua errazteko arduradunari:

a) Mapa egiteaz haratago, nola sortuko dira **asoziazioak, korresponsabilitatea, jabetza finantzazioaz haratago**, **gobernantza** sendoa?
b) Zein izango dira proiektua garatzeko **pauso konkretuak** (ikuspegi **dinamikoa**)?
c) Nola landuko dira **dokumentazioa, sistematizazioa** eta **kontaketa**?
d) Zein da **udalen papera** proiektu honetan?
e) Pentsatu al duzu **agente bikoitzen paperean**?
f) Iritsiko al da proiektu hau **gizarte zibila**rengana? Nola?

Deliberazio taldeari eta beronen indartzea errazteko arduradunari:

a) Zer ulertuko dugu prozesu honen **emaitza** moduan?
b) Nola osatuko dugu taldea **diziplina desberdin**ekin, **pertsona gako**ekin?
c) Zein da ALC, ArantzazuLab, Badalab, Sinnergiak, Orkestra, Deustu, MU edo EHUren papera ekosisteman?
d) Nola landuko dugu **banakoen konpromisoa** eta dimentsio **kolektiboa**ren arteko uztartzea?
e) Nola hobetu ditzakegu gure lanaren **dokumentazioa eta komunikazioa** (blog-ak, playbook-ak)?
f) Ze **helburu konkretu** jartzen dizkiogu gure lanari 2023 bitartean?

c. Saioko programa

THINK TANK

KULTURA POLITIKO BERRIAREN INGURUKO DELIBERAZIORAKO GUNEA
GUNEA, 2021ko azaroak 24

SAIOAN LANDUKO DEN ERRONKA

Fase berri honen hasieran ekintzarako hiru eremu aurkeztu ondoren, aurreko saioan Maria José Canel eta Anne Murphy-rekin aritu ginen hauetako lehenaren (GFAn lankidetzazko gobernantza garatzeko egingo den proiektuaren) oinarriak jartzeko. Horretarako ekinez ikasi proiektuan egin diren ikasketak landu genituen.

Oraingoan ere esperientziatik ikasten jarraituko dugu, hau da, gonbidatua, Stéphane Vincent, aditua eta aritua ere bada. La 27e Région-en izandako esperientzietan oinarrituz, hiru proiektuei dagozkien ekintzen inguruan lanketa egiten lagunduko digu.

SAIORAKO AGENDA

- Sarrera
- Adostutako ekintzen berri ematea
- La 27e Région-en inguruko aurkezpena
- Talde dinamika
- Itxiera